

## EKONOMIA

# Hezkuntza sailari



NAROA ELORTZA  
GORROTXATEGI

**G**reba ataritan jaso nuen zuen e-maila, posta pertsonalean. Hasieran, beste askok bezala, grebaren aurrean ze aukera ditugun jakinarazteko zela pentsatu nuen. Baina ez, grebaren aurkako mugimendu politiko eta komunikatiboa zen jasotako e-maila.

Aitortuko dizuet ahozabalik utzi ninduela, ikusten nuena ezin sinetsi. Komunikabideak erabiltzearekin nahikoa ez, esparru pertsonala erabili duzue langile mugimenduari aurka. Zuek, zerbitzu publikoak bermatu, indartu eta hobetzeko konpromisoa izan beharko zenuketenok. Zuek, gure txikien etorkizunarekin konprometituta egon beharko zenuketenok.

Hezkuntzako langileen greba eta mobilizazioa kalitatezko zerbitzu publikoen aldeko borroka da. Langileen lan-baldintza hobeez gure txikien kalitatezko hezkuntza bermatzeko baldintzak sortzen dituzte. Ratio baxuak ezinbestekoak dira aniztasunaren kudeaketa egoki baterako. Irakasleen egonkortze prozesuek hezkuntza proiektuak indartzeko aukera ematen dute. Eta aldarrikapen guztiok lortzeko, borroka eta mobilizazioa ezinbestekoa da.

Horregatik, seriooki diotsuet ez dudala ulertzen. Ez dut ulertzen nola egin dezaketen halako joko zikina funtzio publikoko langileen aurka. Gure zerbitzu publikoen aurka. Akaso, pribatizazioa eta prekarizazioa bultzatu nahi duzuelako, gutxi batzuk aberastearen truke. Edota arrakala eta desoreka sozioekonomikoak are handiagoak izatea interesatzen zaizuelako, auskalo ze helburu makabroekin.

Lehenengo greba egunak pasata idazten dizuet gutun hau, pozik, txoratzen, arrakasta itzela izan duelako greba deialdiak, %75ekoa sindikatuen esanetan. Langile publikoek erakutsi dutelako beraien konpromiso garbia kalitatezko zerbitzuen alde, hezkuntzaren alde, elkarbizitzaren alde, gizarte justuago baten alde. Zorionak eta eskerrak asko grebalariei. Alboan izango gaituzue. ●

## ANALISIA

# Ikasleen gurasoez kokoteraino

MIKEL GARCIA IDIAKEZ



FREEPIK

**S**eme-alabari jarritako notarekin (bereziki Batxilerrean) edota jarrera txarratgatik irakasleak ezarritako neurriekin ados ez dauden gurasoen presioa da irakasleek duten arazo nagusietakoa, hori diote Vigoko maisu-maistra askok eta Anpe hezkuntza sindikatuak. Jakin-mina piztu dit albisteak: zein da guraso eta irakasleen arteko harremana gurean?

Egokiena zer den jakin badakigu: irakasle eta familiak elkarlanean aritzea, eta ziur hezkuntza komunitate askotan hala ari direla Euskal Herrian. Baina ziur, baita ere, beti ez dela hala, eta harremana bi norabidetakoa izanik, batzuek eta besteek dugula autokritikarako tartea.

Guraso zaren hori: zenbat konfiantza duzu irakaslearengan eta zenbat autoritate aitortzen diozu (edo zenbatetan desautorizatu duzu seme-alaben aurrean)? Zenbatetan kritikatu duzu haren metodologia eta jarduna? Zenbateraino da eskolatik jasotzen duzun iturri bakar (eta inplikazio bakar) seme-alabak kontatzen dizuna? Zenbateraino gainbabesten duzu seme-alaba, beti bere aurka injustuki ari diren sentsazioz? Etxean zenbateraino hartzen duzue kontuan eskolan duen jarreraz (eta bestelakoez) irakasleak dioena?

Irakasle zaren hori: zure ikastetxeak zenbatetan utzi ditu gurasoak hezkuntza proiektutik eta erabakietatik at? Zenbateraino nahi duzu gurasoak eskolako jardunean benetan inplikatzeko eta parte hartzea, eta zenbateraino iruditzen zaizu buruhauste eta ez dagokion arloan muturra sartzea? Zenbatetan agertu zara prest (zure irakasle-metodoetan, neurrietan, erabakietan...) malgutasunez jokatzeko? Zenbaterainoko garrantzia ematen diozu gurasoekiko komunikazioari? Baloratzen al duzu (ba al dakizu) ikasle eta familia horrek etxean egiten duen ahalegina? Hartzen al duzu kontuan ikasleaz familiak kontatzen dizuna?

Laburrean, elkarren arteko komunikazioa zenbaterainokoa da, zalantzak, kezak, ikuspegiak, adostasunak eta desadostasunak partekatzeak, elkarrekin bide-orria marrazteko? Zenbateraino aliatu eta zenbateraino arerio? Hain urrunera joan gabe, zein neurritan elikatzen dugu elkarlana, ikasle taldeak aurrera egin dezan, eta zein neurritan hezten dugu haurra/gaztea batak besteari bizkar emanda? ●